

BILBAO BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

1826/2016 EBAZPENA, abuztuaren 2koa, BILBAO BASURTO ESiko zuzendari gerentearena, Ainhoa Aldazabal Ortiz andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO BASURTO ESiko Zuzendaritzako idazkari izendatzeko.

Maiatzaren 4ko 1447/2016 EBAZPENAREN bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO BASURTO Erakunde Sanitario Integratuan (ESI) Zuzendaritzako idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko, Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzan hain zuen ere..

Balorazio batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Ainhoa Aldazabal Ortiz andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendapen askez Zuzendaritzako idazkari izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO BASURTO ESlan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Ainhoa Aldazabal Ortiz andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO BASURTO ESiko Zuzendaritzako idazkari izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen hau 2016ko abuztuaren 22tik aurrera sartuko da indarrean.

Hirugarrena.-Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuaren ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta BILBAO BASURTO ESiko Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzari eta Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honen iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, bi mila eta hamaseiko abuztuaren bian.

BILBAO BASURTO ESIKO zuzendari gerentea



Osakidetza

7-A

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTEA

DIRECCIÓN GENERAL DE SANIDAD
IZ. MICHOLE GONZALEZ TORRES

Int/Fdo.: MICHOLE GONZALEZ TORRES